Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4228

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 20koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao–Donostia trenbideko Añorga–Errekalde tartea bikoizteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartu, eta titularrei, ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko ekitaldirako deia egiten diena.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2008ko uztailaren 3ko Ebazpenaren bidez, Bilbao-Donostia lineako Añorga-Errekalde tartean trenbidea bikoizteko eraikuntza-proiektua onartu zen.

Añorga-Errekalde tartea bikoizteko eraikuntza-proiektuaren helburua da tarte horretan burdinbidea bikoizteko obrak ikuspegi teknikotik zehaztea eta horien balorazio ekonomikoa egitea. Jarduerak 2.150 m inguruko luzera hartuko du, eta gainera Añorgan geltoki bat eraikiko da, egun dagoena baino zertxobait ekialderago.

Erasandako lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta partzela-planoak datoz.

2009ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez, proiektua burutzeko behar ziren ondasun eta eskubideak jabeei nahitaez kentzeko prozedura abiaraztea eta desjabetzeei buruzko eranskina jendaurrera ateratzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzaien; aldizkari hauetan argitaratu zen: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2009ko ekainaren 30ekoa (123. zk.); Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2009ko ekainaren 30ekoa (120. zk.); 2009ko ekainaren 30eko «Berria», «Diario de Noticias» eta «Deia» egunkariak; gainera, Donostiako Udalaren iragarki-oholean jarri zen.

Organo honen ardura da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko izapideak egin eta nahitaezko desjabetze-jardunbidea ebaztea, hala ezarrita baitago Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 7.g eta 10.1.h artikuluetan, eta maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e artikuluan.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluak ezartzen du trenbideak jarri edo lineak zabaltzeko proiektuak ofizialki onartzeak berekin

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4228

RESOLUCIÓN de 20 de julio de 2009, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se aprueba la relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto de construcción del desdoblamiento del tramo Añorga-Rekalde del ferrocarril Bilbao-Donostia» y se convoca a los titulares al levantamiento de actas previas a su ocupación.

Mediante Resolución de 3 de julio de 2008, de la Directora de Infraestructura del Transporte, se aprobó el «Proyecto de Construcción del Desdoblamiento del Tramo Añorga-Rekalde del Ferrocarril Bilbao-Donostia».

El «Proyecto Constructivo del Desdoblamiento del tramo Añorga-Rekalde» tiene por objeto la definición técnica y la valoración económica de las obras de duplicación de vía del citado tramo, cuya longitud es de 2.150 m. aproximadamente, así como la construcción de una estación en Añorga, cuya nueva ubicación se encuentra ligeramente desplazada al Este respecto del emplazamiento actual.

A efectos de obtención de los terrenos y de la gestión de los bienes y derechos afectados, el Proyecto contiene la identificación pormenorizada de los mismos mediante la relación y planos parcelarios.

Mediante Resolución de 4 de junio de 2009 se acordó iniciar el procedimiento de expropiación forzosa de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de este proyecto y se sometió a información pública la relación del Anejo de Expropiaciones, notificándose a los interesados y publicándose en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 123, de 30 de junio de 2009, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 120, de 30 de junio de 2009, en los diarios «Berria», «Diario de Noticias» y «Deia» de 30 de junio de 2009; y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

Este órgano es competente para la adopción de los actos de tramitación y resolución del procedimiento de expropiación forzosa para la realización de las obras de infraestructura ferroviaria de competencia de la Comunidad Autónoma, según lo dispuesto en el artículo 7.g del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, en relación al artículo 10.1.h del mismo texto y al artículo 10.1.e del Decreto 4/2009, de 8 de mayo.

La legislación sectorial aplicable contiene una declaración de utilidad pública y de urgencia de la ocupación de los bienes afectados identificados en los proyectos

ekarriko duela proiektuak erasandako eta identifikaturiko ondasunak okupatzea onura publikokotzat eta lehenbailehen egin beharrekotzat jotzea; eta horrek ahalmena ematen dio Administrazioari Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako jardunbidera jotzeko eta, hortaz, erasandako lurrak okupatu edo ondasunak eskuratzeko; horretarako, lehenbizi, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak zehaztu, titularrak identifikatu eta baloraziorako behar diren datu eta azalpenak jasoko dira aktan, eta perituak ezarritako diru kopurua, ordaindu edo okupatu aurretiko gordailu gisa utzi beharko da; eta, bidezko bada, premiazkotasunak ekarritako kalteen ordaina ere eman beharko zaie.

Beraz, aurrekariak, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta haren Erregelamenduaren 56. artikuluan xedatutakoa, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bilbao-Donostia lineako Añorga–Errekalde tartean trenbidea bikoizteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta lehenbailehen okupatu beharrekotzat jotzea, Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluan xedatutako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan azaltzen diren ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea, bertan zehazturiko egun eta orduan, Donostiako udaletxera ager daitezen, proiektuak erasandako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egin eta, bidezko bada, haiek formalki okupatu ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero eta doakionak hala eskatzen badu, lur eremura bertara joateko aukera ere izango da.

Ekintza horretara erasandakoek berek edo haien izenean jokatzeko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoek joan beharko dute eta ondasunen titular direla egiaztatzen duten agiri-paperak (eskritura publikoak, Jabegoaren Erregistroko ziurtagiria edo informazio-oharrak, eta abar) eta eskubideak egiaztatzen dituzten beste edozein agiri-paper aurkeztu beharko dute. Nahi izanez gero, perituak eta notarioa ere eraman ahal izango dituzte, beren kontura.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoari jarraituz, interesdunek zerrendako okerrak zuzentzeko alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte aktak egiteko egunera arte. Alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean (Lakua 1).

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Garraio Azpiegituraren zuzendariari edo

de establecimiento o ampliación de líneas ferroviarias oficilamente aprobados (artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario), declaración legal que faculta a la Administración para acudir al procedimiento previsto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, procediendo a la ocupación de los terrenos o a la disposición de los bienes afectados, previo levantamiento de actas en las que se describan dichos bienes o derechos, se identifique a sus titulares, y se hagan constar los datos precisos para su valoración, y previo abono o consignación de la cantidad determinada por el perito como depósito previo a la ocupación y, en su caso, de la indemnización por el importe de los perjuicios causados por la urgencia de la ocupación.

En consecuencia, visto lo actuado y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 20, 21 y 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y 56 de su Reglamento, y demás disposiciones concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Aprobar la relación adjunta de bienes y derechos afectados por el «Proyecto de Construcción del Desdoblamiento del Tramo Añorga-Rekalde del Ferrocarril Bilbao-Donostia», y declarar la necesidad de su ocupación con los efectos señalados en el artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario.

Segundo.– Convocar a los propietarios que figuran en dicha relación para que, en los días y hora señalados en la misma, y previa personación en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se proceda al levantamiento de las actas previas a la ocupación de los bienes y derechos afectados y, si procede, a la ocupación formal de los mismos, sin perjuicio de trasladarse al terreno en caso necesario, a solicitud de los interesados.

A dicho acto deberán asistir las y los afectados personalmente o bien representados por persona debidamente autorizada para actuar en su nombre, aportando los documentos acreditativos de su titularidad (escrituras públicas, certificados o notas informativas del Registro de la Propiedad, etc.) así como cualquier otro documento acreditativo de sus derechos, pudiendo hacerse acompañar a su costa, si lo estiman oportuno, de sus peritos y de un notario.

Asimismo, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 del Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa, hasta el día del levantamiento del acta previa, los interesados podrán formular alegaciones a los efectos de subsanar los posibles errores de la misma, dirigiéndose por escrito al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, Dirección de Infraestructura del Transporte, calle Donostia-San Sebastián, n.º 1-Lakua I, Vitoria-Gasteiz.

Contra la presente Resolución cabe interponer recurso de alzada ante este órgano o ante el Viceconsejero

Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 20a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

de Transportes y Obras Públicas, dentro del plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación o, en su caso, publicación.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 2009.

EL Director de Infraestructura del Transporte,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
004	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián-San Sebastian*	9:00	José M.ª Gómez Azurmendi			208	Hiri-lurzorua *Urbana*	LR25B03	-
006	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	9:30	Comunidad de Propietarios Cincuentenario.	2855		4310	Hiri-lurzorua *Urbana*	LR06113	
006-1	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	10:00	Naturgas Energía Grupo, S.A.			23	Hiri-lurzorua *Urbana*	LR06113	
006-CUL-01	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	10:30	Antonio Guerra Remedios				Hiri-lurzorua *Urbana*	LR06113	
006-CUL-02	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:00	Manuel Macedas	218		183	Hiri-lurzorua *Urbana*	LR06113	

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
007-1	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:30	Aguas del Añarbe, S.A.			110	Hiri-lurzorua *Urbana*	LR06113	
010	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:00	Comunidad Karmengo Ama.	211		1512	Hiri-lurzorua *Urbana*	MQ06097	
011-CUL-01	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Patxi Matxain Alzaga.				Landa-lurzorua *Rústica*	04	123
022	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	13:00	M.ª Jesus Esnaola Irizar	69	738	3161	Landa-lurzorua *Rústica*	04	331
023	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	13:30	Hnos Ariceta Lopetegi y Maria Lopetegi Arzallus			26	Hiri-lurzorua *Urbana*	MO06391	
023-1	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	15:30	Dominika Jáuregui, Paqui González y M.ª Cruz Urdangarin Zurutuza	3		119	Hiri-lurzorua *Urbana*	MO06062	

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
030	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	16:00	Ximenez y Cia, S.A.	691	711	1457	Hiri-lurzorua *Urbana*	NO06044	
032	Abuztuak 6 *Agosto 6,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	16:30	Helados y Postres, S.A.	109	119	143	Hiri-lurzorua *Urbana*	NO06A42	
033	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	9:00	Comunidad Propietarios Casa Caserón	1126		413	Hiri-lurzorua *Urbana*	NO06043	
034	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	9:30	Inmobiliaria Nuri,, S.A.	1786		2598	Hiri-lurzorua *Urbana*	NN06041	
034-3	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	10:00	M.ª Luisa Aguirreche Sodupe	29			Hiri-lurzorua *Urbana*	NN06036	
035	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	10:30	M.ª Concepción Galatas Etxeberria			41	Landa-lurzorua *Rústica*	03	114

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
034-2	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:00	Jose Luis Unanue Lujambio	108			Hiri-lurzorua *Urbana*	NN06038	
034-1	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:00	Jose Luis Unanue Lujambio	249			Hiri-lurzorua *Urbana*	NN06008	
027	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:30	Victorio Alkain Zabala	488		324	Landa-lurzorua *Rústica*	03	143
026	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:30	Juan Luis, M.ª Isabel y Jose Mendizabal Alkain y Hrdos Izaskun Mendizabal Alkain	3231		690	Landa-lurzorua *Rústica*	03	144
028	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:30	Ignacio Alkain Zabala	4264		332	Landa-lurzorua *Rústica*	03	116
027-1	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	11:30	Iñaxi Alkain Zabala			13	Landa-lurzorua *Rústica*	03	142

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
020-INT	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Hrdos. Jose Basurto Mendizabal	21		2204	Landa-lurzorua *Rústica*	04	122
015	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.			21	Landa-lurzorua *Rústica*	04	125
025	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.	10290		1137	Landa-lurzorua *Rústica*	03	117
011	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.	4	1603	16945	Landa-lurzorua *Rústica*	04	123
025-1	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.	631			Landa-lurzorua *Rústica*	03	116
024-1	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.	110		78	Hiri-lurzorua *Urbana*	NP24001	

Finka *Finca*	Eguna *Fecha*	Tokia *Lugar*	Ordua *Hora*	Titularra *Titular*	Desj. eremua *S.Expo*	Zort. Eremua *S.Serv*	Lurp. eremua *Sot*	Katastoa *Catastro*	Poligonoa *Polígono*	Partzela *Parcela*
030-1	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.			3	Hiri-lurzorua *Urbana*	NO06045	
029	Abuztuak 7 *Agosto 7,* 2009	Donostia-San Sebastiángo Udala *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*	12:30	Sociedad Financiera y Minera, S.A.			410	Landa-lurzorua *Rústica*	03	140